

# GORDEXOLA, JOLAS HERRIA

GUKi buruzko albiste hau bi deialdi publikorekin hasiko dugu:

**-Ekainak 27 asteazkena, 19:30etan:**

GORDE-JOKO mahai joko berriaren aurkezpena liburutegian, Gordexolako herritar guztientzat.

**-Abuztuak 25 larunbata, 11:30etan:**

GUKek antolatutako GINKANA plazan eta inguruetan, 8-12 urte bitarteko umeentzat.

Ekainaren 14an ospatu dugu ikasturte honetako GUKen azken bilera. Gordexolako Umeen Kontseilua jokogintzan murgilduta ibili da azkenaldian, herrigintza egiteko modu oso umea baita. Lan eta lan aritu dira herriko 12 neska-mutil hauek azken bilera honetan Angela Eguia Gordexolako alkateari bi joko aurkeztu ahal izateko:

Alde batetik, GINKANA bat prestatu dute: pista eta proba joko bat, kalean jokatzekoa, kaleen jolasgarritasuna neurtzeko balioko duena. Joko hau egiteko herriko plaza eta inguruak mugarritu dituzte: errepide nagusia ezin da gurutzatu, baina bai San Kosmetik datorrena, Udaletxe inguruak ere erabili ahal direlarik; beste aldetik, kanposanturaino eta eskolako patioraino erabil liteke, baita eliza inguruak ere. Normalean Gordexolako umeek kalean ibiltzeko, jolasteko, harremanak egiteko... erabiltzen duten esparrua horixe baita, aurreko bilera batean ikusi genuen bezala.

Jokatu dugu ginkana jokoa eta ikusi dugu arriskuak daudela, kotxeak, bai, jakina. Eta proposatu dugu San Kosmetik behera datorren errepidea hirigunean sartzen den momentutik eta bidegurutzeraino argi eta garbi markatzea oinezkoentzako gune bezala; umeak jolasten ari diren seinaleak jartzea, asfalto lakatza jartzea eta goratzea kotheen abiadura murriztarazteko. Bestalde, liburutegi aurretik igarotzen den kale zati hori ere kotxeei mugatzea neurri proposa litzateke.



Ginkana joko hau Gordexolako jaietan herriko ume guztientzat egitea proposatzen du GUKek, eta GUKeko umeek antolatzeko konpromisoa hartzen dute, ahal duten neurrian.

Bestalde, Gordexola oinarri duen mahai joko bat diseinatu eta fabrikatu dute Umeen Kontseilukideek: GORDE-JOKO izena du. Joko honetan herriari buruzko zenbait gai azaltzen dira. Jokalarien helburua Udaletxera ailegatzea da, herriaren zentroa delako. Horretarako hainbat proba eta galdera gainditu behar dituzte. Bilera honetan GUKek Alkateari aurkeztu dio jokoaren eta elkarrekin partida pare bat jokatu dituzte. Estadistikarako: Naia Carabias izan zen Gorde-Jokoren lehen irabazle historikoa.



Jokoaren aurkezpena udal liburutegian egingo da, eta bertan emango dio GUKek jokoaren herriari, liburutegian bertan geratu dadin, nahi duenak jokatu dezan. Madrilek Monopolya dauka eta Gordexolak Gorde-Joko... Zenbat herririk esan dezakete joko propioa dutenik?

Hemen ikus ditzakezue bilera honetako argazkirik politenak:  
<https://flic.kr/s/aHsmmUy9iG>